

Gipuzkoako Entomologia Elkarte
Asociación Gipuzkoana de Entomología

Heteropterus

Nº 11 Zbkia. - Enero 2004 Urtarrila



En 1540 se acusó en España a una polilla y se la llevó a juicio por haber destruido un tapiz muy caro. El juez la declaró culpable y se la condenó a muerte.



En la península de Malasia existe una mantis flor de color rosa cuyas patas tienen forma de pétalo.

Es tal el parecido con una flor de verdad que atrae fácilmente a sus presas.

La larva de la mosca efírida vive en las aguas calientes de mananciales a 60 grados de temperatura.

El insecto palo gigante: *Phobaeticus serratipes*, puede llegar a medir hasta 55 cm. con las patas estiradas.



Argitaratzailea / Edita:
Gipuzkoako Entomologia
Elkartea - Asociación
Gipuzkoana de Entomología

**Legе-gordailua / Depósito
legal:**
SS - 1.378/99

ISSN: 1576-1819

**Erredakzio taldea /
Comité de redacción:**
Pedro Ayerbe
Mónica Menéndez
Arantza Oyarbide
Faustino Uranga
Imanol Zabalegui

**Azalaren diseinua / Diseño de
la portada:**
Faustino Uranga

**Azaleko argazkia / Fotografía
de la portada:**
Lygaeus equestris (Linnaeus, 1758)
I. Zabalegui

Dohainikako argitalpena bazkide,
Gipuzkoako Eskola eta Udale-
txeentzat / Publicación gratuita
para los socios, Colegios y
Ayuntamientos de Gipuzkoa.

HETEROPTERUS
Egoitza soziala/Sede social:
OIARTZUN (Gipuzkoa)

**Gutunak helbide honetara bidali
behar dira / Toda la correspon-
dencia debe enviarse a:**

HETEROPTERUS
Apdo. 193 P.K.
20120 HERNANI (Gipuzkoa)
☎ 943 331 300
✉ heteropterus@teletel.es

Nº 11 Zkia. • Enero 2004 Urtarrila

HETEROPTERUS

GIPUZKOAKO ENTOMOLOGIA ELKARTEA
ASOCIACIÓN GIPUZKOANA DE ENTOMOLOGÍA

AURKIBIDEA – INDICE

	<u>Orr. / Pág.</u>
Editoriala / Editorial	4
Vicent Van Gogh Naturalista	5-10
Pedro Ayerbe Arana	
Gipuzkoako intsektuak / Insectos de Gipuzkoa	11-22
Internet: Orri interesgarriak / Páginas de interés	23-24
Mónica Menéndez	
Liburuak / Libros	25-27
Hemeroteka	28-29
Intsektuekin jolasean / Jugando con los insectos	30
Faustino Uranga	

EDITORIALA - EDITORIAL

Kaixo denori:

“Elur urte, arto urte”

Lerro hauek idazten hari garenean, atzerapen piska batekin, (otsaila bukaera baita) oraindik mendiak elurrez estalita daude. Datorren denboraldi entomologikorako planak egiten hasita gaude, udaberria noiz iritsiko zain, horrek naturan sortzen duen bizidunen bat-bateko agertzearekin.

Gipuzkoako Entomologia Elkartetik gurekin harremanetan jartzera animatzen zaituztegu, intsektuen mundu erakargarri hau ezagutzeko jakin-mina duzen guztiak. Atseginez lagunduko dizuegu.

Giro honetan pixkanaka sartzten joateko, 25. orrialdetik 27.era liburu dendetan edo liburutegietan topatu ditzakezuen oinarritzko liburu batzuen informazioa aurki dezakezue.

Hola a tod@s:

"Año de nieves, año de bienes".

Cuando escribimos estas líneas, con cierto retraso ya que estamos a últimos de febrero y las montañas siguen cubiertas por un manto de nieve, ya hacemos planes para la nueva temporada entomológica, esperando la llegada de la primavera y la consiguiente explosión de vida en la naturaleza.

Desde la Asociación Gipuzkoana de Entomología os animamos, a todos los que tengáis curiosidad por este apasionante mundo de los insectos, a contactar con nosotros. Os atenderemos gustosamente.

En las páginas 25-27 encontraréis información de algunos libros básicos que podéis hallar en las librerías o bibliotecas para empezar a introducirnos un poco en este mundillo.

Bazkide egiteko datuak / Datos para hacerse socio

Izen Abizenak / Nombre y Apellidos

Helbidea / Dirección

Herria / Localidad KP/CP.....

Bazkide / Socio: 15 Euro urteko / anuales

Bazkide gaztea / Socio juvenil: 12 Euro urteko / anuales

“HETEROPTERUS”

**Gipuzkoako Entomologia Elkarte -
Asociación Gipuzkoana de Entomología**

Egoitza soziala / Sede social: OIARTZUN (Gipuzkoa)

✉ Gutunak / Correspondencia: Apdo. 193 P.K.

20120 HERNANI (Gipuzkoa)

☎ 943 331 300

💻 heteropterus@teleline.es

Orri hau ez baduzu moztu nahi, fotokopia batean edo paper batean bidali ditzakezu zure datuak. / Si no quieres cortar esta hoja, puedes fotocopiarla o simplemente mandarnos tus datos escritos en una hoja.

VINCENT VAN GOGH NATURALISTA

Pedro Ayerbe Arana

*Es maravillosamente grato el estudio de la Naturaleza
que atribuye un nombre a todos los seres,
un pensamiento a todos los nombres,
un recuerdo y una afección a todos los pensamientos.*


Charles Nodier

Bere bizitza bere koadroak bezain interesgarria den pintoretik handienetako bat da Vincent Van Gogh (1853-1890), pintura arloan jeinu berritzaile izandakoa. Bere lanak miresten ditugu, baina, zer dakigu gizon honen zoritzarreko bizitzaz, zein bederatzi urtetan 800 koadro baino gehiago margotzera heldu zen? Artikulu txiki honetan bere biografiako aspektu batzuetan jarriko dut arreta, haren alde naturalistarekin lotuta dauden neurrian.

Txiki-txikitatik Vincent umeak begiratzeko gaitasun handia erakusten du, ezezagunaren aztertzaile bihurtuz. Gainerako umeak amaren gonapean izkutatzen zireneko adin berean Vincent lorategi zein larreetan, ibai zein erreketan isladatzen zen, Natura azaltzen den aspektu anikioitz eta kontaezinak begiztatuz. Lore baten petalok edo uretako kakarraldok baten mugimenduak nahikoak ziren bere jakinmina sortzeko. Batzuetan orduak eta orduak ematen zituen lurrean mugituz.

Vincent Van Gogh (1853-1890), genio innovador de la pintura, es uno de los grandes pintores cuya biografía resulta tan interesante como sus cuadros. Admiramos sus obras, pero ¿Qué sabemos de la vida miserable de este hombre que llegó a pintar más de 800 cuadros en nueve años? En este pequeño artículo centraré mi atención en ciertos aspectos de su biografía, relacionados siempre con su faceta de naturalista.

Desde su más tierna infancia el pequeño Vincent da muestras de una gran capacidad de observación que lo convierte en un explorador de lo desconocido. A la edad en que los demás niños se escondían en las faldas de sus madres Vincent se aislaba en el jardín o en los campos, en los arroyos o en el río contemplando los múltiples e incontables aspectos en los que se muestra la Naturaleza. Los pétalos de una flor o los nerviosos movimientos de un escarabajo acuático eran sufi-



Van Gogh, Auvers-sur-Oise, Jun-Jul 1890

tzen den gutzia begiratu. Horrelakoetan ez zuen gainerako lagunartea bilatzen, bakardadea baizik.

Bere arreba Elisabethek ez du exageratzen honako hau idaztean: "Naturak mila ahotsekin hitz egin zion..." Elisabethek Vincenten bizitzari buruz beste datu batzuk ematen dizkigu: "Nire anaia tutik ere esan gabe aldentzen zen gainerako umeengandik. Lorategitik ate txiki batetik irteten zen; soroak zeharkatzen zituen bidexka batetik jotzen zuen errekarara Zeramatzan botila eta sareari esker bazekiten gainerako umeek nora zihoan. Halaber bazekiten uretako animaliak harrapatzen trebea zela., batez ere bizkar distiratsuak, begi handi biribilak eta mako-itzurazko hankak zituzten kakarraldo handiak, zeinak uretatik kanpo urduri mugitzen ziren.

cientes para despertar su curiosidad. A veces se pasaba horas y horas observando todo lo que en la tierra se mueve. En estas situaciones no buscaba la compañía de los demás,

sino la soledad.

Su hermana Elisabeth no exagera al escribir: "con mil voces la Naturaleza le habló..." Elisabeth nos facilita otros datos sobre la vida de Vincent: "mi hermano se separaba de los demás niños sin decir una palabra. Salía del jardín por una puertecita; a través de un sendero que atravesaba los campos se dirigía al riachuelo. Los demás niños sabían a donde iba por la botella y la red que llevaba consigo. Sabían así mismo que era especialista en coger animales acuáticos, sobretudo grandes escarabajos de brillantes lomos, grandes ojos redondos y patas en forma de gancho que se agitaban nerviosos al sacarlos del agua. Estos coleópteros tenían largos nombres en latín difíciles de recordar, pero él los sabía todos de memoria. Los preparaba y los prendía

Koleoptero hauek latinezko izen luzeak zituzten, gogoratzeko zailak, baina hark buruz zekizkien guztiak. Behin prestatuta orratzekin zeharkatzen zituen lerroetan eta izen bana zituzten etiketa txikiak aldamenean jarrita, kartoi txuriz egindako kaxa dotoretan(...). Halaber ezagutzen zituen lorerik arraro eta politenak hazten zireneko bazterrak Herriko kale zuzenetik irten da, Zunderteko biztanleak joaten ez zireneko bideak bilatzen zituen. Bertan mota guztietako animalia, intsektu eta txorien ohiturak eta mugimenduak aztertzen zituen, eta zehatz-mehatz bazekien ere azken hauen kabiak non zeuden. Ibilaldi bakarti hauetan haizeak mehatsatutako kabiak sendotu eta errepedean galdutako beldarrak salbatzen zituen.

Hiztegi eta enziklopedietan naturalista hitza bilatzen baldin badugu bi adiera nagusiak aurkituko ditugu:

- Natura aztertzen duen pertsona.
- Natura fidelki irudikatzeke helburua duen artista.

Bi definizio hauek erabil daiteke Vincenten ekintza eta ardurak zehazteko; gainera Naturarekiko maitasuna bere bizitza osoan azaltzen dela egiaztatu daiteke. Horrela arte arloan buru-belarri aritzen denean tendentzia naturalista hau indarrez beteta berragertuko da. Aipatzen ditugun koadro eta marrazkiak ez dira botanika edo entomologiari

con alfileres, distribuidos en filas junto a pequeñas etiquetas con sus respectivos nombres, en unas elegantes cajitas de cartón blanco(...). Conocía también los rincones donde crecían las flores más raras y bellas. Saliendo de las calles rectas del pueblo buscaba senderos nunca frecuentados por los habitantes de Zundert. Allí inspeccionaba la vida y movimientos de toda clase de animales, insectos y pájaros, y sabía el lugar exacto donde éstos tenían sus nidos. En estas correrías solitarias consolidaba los nidos amenazados por el viento y salvaba las orugas perdidas en la carretera".

Si buscamos la palabra naturalista en diccionarios y enciclopedias



Van Gogh, Auvers-sur-Oise, Jun-Jul 1890

emandako ikasketen etekinak. Vincentek ez zuen ez mikroskopiorik ezta luparik behar; begiekin nahikoa zuen. Adibide modura Nuenen marraztutako txorien kabiak aipatu daiteke, dudarik gabe ekintza naturalistak kalifikatiboa merezi dutenak.

Parisen emandako bi urteak batez ere loreen zeinupean egon ziren. Epoka honetan loreak irudikatzen dituzten natura hilen kopurua aipatzeko modukoa da. Tematika honetako koadro gehienetan pintzelkadaren intensitatea koloretan konzentratzen da, baina xehetasunetan sakontzeko bere lehengo ohitura somatzen da,


encontraremos dos acepciones fundamentales:

- persona que estudia la Naturaleza
- artista que tiene como finalidad reproducir fielmente la Naturaleza


Cada una de estas definiciones puede aplicarse a las actividades e inquietudes de Vincent; además se puede constatar que el amor por la Naturaleza se revela durante toda su vida. Así cuando se entrega de lleno al arte volverá a aparecer llena de empuje esta tendencia naturalista. Estos cuadros y dibujos no han sido fruto de estudios consagrados a la botánica ni a la entomología. A Vincent no le hacían

falta ni la lupa ni el microscopio; le bastaban sus ojos. A modo de ejemplo se puede pensar en los nidos de pájaros que representó en Nuenen y que merecen el calificativo de realizaciones naturalistas por excelencia.

Los dos años que pasará en París estarán en su mayor parte bajo el signo de las flores. El número de naturalezas muertas representando flores y fechadas en esta época es considerable. En la mayoría de los cuadros de esta temática la intensidad de la pincelada se concentra en el colorido, pero se adivina su antigua costumbre de



Van Gogh, Saint-Rémy, 6 Jun 1889



Van Gogh, Saint-Rémy, 21 May 1889

baita lorontzi bat belarrez beteta pinta-
tu ere. Bere balio irudigarri esker
botanika liburu batean egon zitekeen
arrakastaz.

Arlesen betidanik ezagutzen
zituen fruta-arbolak berrikusiko ditu:
sagarrondoak, udarondoak, gerezion-
doak..., baina Frantzia hegoaldeko
klima eguzkitsuak kolore azkoz disti-
ratsuagoak emango dizkie. Hegoaldearen aurkikuntzak elementu
berriak emango dio: ikus-gardentasu-
na eta sentimendu naturalista honetan
sakontzea. Elementu hauei "hiru txit-
xarrak" eta "almendrondoren adarra"
maisu-lana, betidanik Natura sentit-
zen duen artista baten emaitzak baka-
rrik izan daitezkeenak.

Proventzako Saint-Rémyn Vin-
centen naturalismoa berriz agertuko
da, inoiz erabat desagertu ez zena.

penetrar en los detalles. Incluso llega a
pintar un jarro con hierbas. Gracias a
su valor ilustrativo esta pintura podría
figurar, con éxito, en un manual de
botánica.

En Arlés volverá a ver los árboles
frutales que conocía desde siempre:
manzanos, perales, cerezos...pero el
clima soleado del mediodía de Francia
les dará unos coloridos mucho más
radiantes. El descubrimiento del sur le
aportará nuevos elementos: una nitidez
visual y una profundización en el senti-
miento naturalista a los que debemos
"las tres cigarras" y la magistral "rama
de almendro", que solo pueden ser
obras de un artista volcado desde siem-
pre en la Naturaleza.

En Saint-Rémy de Provence rebro-
tará el naturalismo de Vincent, que
nunca desapareció del todo. Nume-

Koadro ugari eta hamarnaka marazkik hau ziurtatzen dute eta inguruan ikusten zituen zuhaitz, zuhaizka, landare, lore eta intsektuen azterlanetan arreta jarri zituela batez ere frogatzen digute. Dena den, hutsegitea izango litzateke artelanok eta pintore gehienek egiten dituzten natura hilak nahastea; Naturari zion jaiotzetiko begiruneak bultzatuta izaki guztien aurrean makurtu zen, hura berbera naturalista disziplinatua egin duen jakinmin aseezina zuelarik. Halaber aipa litezke maila goreneko zenbait marrazki, bere zale-tasunari esker eginak: paboi handia tximeleta, suge-belarren bozetoa eta ostoz estalita dagoen dontzeila-belarren zurtoina.

Van Goghek Natura xurgatu zuen, makurtzera behartu zuen, bere pentsamoldeko formetara moldatzera, bere barra-aldietan jarraitzera eta bere deformazio berezietara jasatera ere behartu zuen Natura. Haren pintzelpean gauza guztiak animatzen dira bizi arraro batekin, egiazko izatetik independentea. Zuhaitz, zeru, lore, soroen onurako ematen zitzaion lanari Vincent, guzti hauei bere izatearen bizigarri miragarria ematen zielarik. □

rosos cuadros y decenas de dibujos lo certifican y nos demuestran que su atención se concentró principalmente en el estudio de los árboles, arbustos, plantas, flores e insectos que veía a su alrededor. De todos modos sería una equivocación confundir estas obras con las naturalezas muertas que suelen hacer la mayoría de los pintores; empujado por su innato respeto a la naturaleza Vincent se inclinó sobre cada ser con esa insaciable curiosidad que ha hecho de él un disciplinado naturalista. Se podrían citar también aquí algunos dibujos en los que, fiel a su vocación, alcanza la cumbre, como la polilla gran pavón, el estudio de los aros y el tallo cubierto de hojas de la hierba doncella.

Van Gogh absorbió la Naturaleza, la obligó a doblegarse, a amoldarse a las formas de su pensamiento, a seguirle en sus arrebatos, incluso a sufrir sus características deformaciones. Bajo su pincel todas las cosas se animan con una vida rara, independiente de su existencia real. Vincent se entrega en beneficio de los árboles, de los cielos, de las flores, de los campos, a los que infunde la sorprendente savia de su propio ser. □

Bibliografía:

- "Van Gogh", Editorial Blume, (Barcelona, 1973)

- ELISABETH H. VAN GOGH, "Van Gogh, recuerdos personales contados por su hermana", Parsifal Ediciones, (Barcelona, 1989)

LEPIDOPTERA

NYMPHALIDAE

Apanthopus hyperantus

(Linnaeus, 1758)


Neurria: 40-46 mm.

Ekainetik uztailera agertzen dira. Belaunaldi bat dute urteko. Egunekoa da.

Beldarrak genero hauetako gramíneak: *Poa*, *Phalaris*, *Milium* eta *Carex* janez elikatzen dira. Inbematu egiten dute eta jatera egun eguzki-tsetan irteten dira.

Ereak, gero larbak jango duen landarea ugari dagoen lekuetan, hegan doala jartzen ditu arrautzak, leku hauek gehienetan leku hezeak izaten dira.

Hegada motel samarra du. Pausatzen denean hegoak itxi egiten ditu eta orduan beheko aldean dituen ozeloak primeran ikusten zaizkio. Gipuzkoan urria da.



Tamaño: 40-46 mm.

Vuela de junio a julio. Una generación al año. Actividad diurna.

Las orugas se alimentan de gramíneas de los géneros: *Poa*, *Phalaris*, *Milium* y *Carex*. Invernan y salen a comer en días soleados.

Características: La hembra pone los huevos desde el aire en los sitios donde abunda su planta nutricia, generalmente zonas húmedas. Su vuelo es bastante lento. Cuando se posa cierra las alas dejando ver los ocelos de la parte inferior.

Escasa en Gipuzkoa.

LEPIDOPTERA

NYMPHALIDAE

Araschnia levana

(Linnaeus, 1758)


Neurria: 28-40 mm.

Apiriletik irailera agertzen da egunez, bi belaunalditan.

Beldarrak taldeetan bizi dira; arantzez beteak, kolore beltza dute; mantso ibiltzen dira, eta lurrera erortzen dira inor hurbildutakoan. Hauek asunak janez elikatzen dira.

Tximeletak baso zabal eta itzaltsuen zaleak dira. Polimorfikoa da urtaroaren arabera: udaberriko, *f. levana*, marroi gorriska da eta udakoa berriz, *f. prorsa*, ia beltza.

Gipuzkoan oso urria da.



Tamaño: 28-40 mm.


Vuela de día entre abril y septiembre en dos generaciones.

Las orugas viven en grupo, son de color negro cubierto de espinas, se mueven lentamente y caen al suelo cuando son molestadas. Estas se alimentan de ortigas.

Las mariposas frecuentan zonas boscosas abiertas y con sombras. Tiene polimorfismo estacional: la forma de primavera, *f. levana*, es de color marrón rojizo; y la forma estival, *f. prorsa*, es casi negra.

Es muy escasa en Gipuzkoa.

GIPUZKOAKO INTSEKTUAK - INSECTOS DE GIPUZKOA



LEPIDOPTERA


LYCAENIDAE

Quercusia quercus

(Linnaeus, 1758)

Hego-luzera : 25-30 mm.
Ekainetik abuztura agertzen dira egunez.
Beldarrek batez ere haritza, baita artea, lizarra, gaztainondoa eta abar, jaten dute. Hauek marroi argiak dira, bizkaraldean hiruki horiska eta alboetan marra ilun bana dituztela. Beldarrok inurriekin elkartu ohi dira.
Harizti eta artadietan bizi dira. Espezie hau ikustea ez da erraza. Izan ere, zuhaitzen gainetik egiten du egan. Arrak ez bezala, emeak orban bideta batzuk ditu bereizgarri.
Gipuzkoan oso urria da.

Tamaño: 25-30 mm.
Vuela de día entre junio y agosto.
Las orugas se alimenta de: Hojas del roble y a veces de encina, fresno, castaño, etc. Son de color marrón claro con triángulos dorsales amarillentos y una línea lateral más oscura, tienen cierta tendencia a asociarse con las hormigas.
Habitan los bosques de robles y encinas. Es una especie poco visible ya que acostumbra a volar por la copa de los árboles. El macho no tiene las manchas violetas que caracterizan a la hembra.
Es muy escasa en Gipuzkoa.



LEPIDOPTERA

PIERIDAE

Gonepteryx cleopatra

(Linnaeus, 1767)

Neurria: 40-55 mm.
Eguneko tximeleta honek bi belaunaldi ditu: martxoa-ekaina eta bigarrena negutarra, uztailetik hurrengo udaberriara arte.
Beldarra *Rhamnus* generoko landareak janez elikatzen da; eta bai beldarra bai pupa oso kriptikoak direnez, oharkabe pasatzen dira.
Orokorrean ur inguruan ibili ohi da hegan: putzuz betetako bideetan, erreketan, loreak dauden belardietan, etab. Arra, aurreko hegoetan duen orban laranja dela eta, urrutira ikus daiteke. Neguko egun epeletan ere ikus daiteke espezie hau.
Gipuzkoan maizkoa da.

Tamaño: 40-55 mm.
Esta mariposa diurna vuela en dos generaciones: marzo-junio y la segunda, invernante, desde julio hasta la primavera siguiente.
Las orugas se alimentan de plantas del género *Rhamnus*; y tanto la oruga como la pupa son muy crípticas, pasando desapercibidas.
Vuela en general cerca del agua: caminos encharcados, arroyos, prados con flores, etc. El macho se ve de lejos por su mancha naranja en las alas anteriores. En días cálidos de invierno se puede ver volar a esta especie.
Es frecuente en Gipuzkoa.

LEPIDOPTERA

NOCTUIDAE

Luperina testacea

(Denis & Sch., 1775)



Hego-luzera : 30-35 mm.
Abuztutik irailera agertzen dira gauez.
Beldarrak lurpean bizi dira, belarren sus-
traiak janez, marrubiarenak, besteak beste.
Gramineo asko dauden larreetan bizi dira.
Hegoetako marrazkiaren arabera hainbat
barietate aurki daitezke. Penintsulako iparral-
dean nahiko arrunta da; hegoaldean, berriz,
oso urria.
Gipuzkoan oso urria da.

Tamaño: 30-35 mm.
Vuela de noche entre agosto y septiembre.
Las orugas viven bajo el suelo alimentándose
de raíces de plantas herbáceas como
Marrubium vulgare.
Habitan las praderas con abundancia de gra-
mineas. La variabilidad en el dibujo de sus
alas hace que existan varias formas. Se
encuentra con bastante frecuencia en la mitad
septentrional de la Península mientras que es
muy rara en la mitad meridional.
Es muy escasa en Gipuzkoa.

LEPIDOPTERA

NOCTUIDAE

Orthosia gothica

(Linnaeus, 1758)



Hego-luzera : 30-35 mm.
Martzotik maiatzera agertzen dira gauez.
Beldarra berde argi kolorekoa da, luzerako
marka zabal zuri bat duelarik eta ezkia, haritza,
zumarra eta abar. janez elikatzen dira.
Lorategi, parke eta baso mistoetako argiinee-
tan bizi da. Aurreko hegoetako "C" itxurako
marka beltzak direla eta, erraza da tximeleta
hau bereiztea. Noctuidae familian sahat-
s, zumar eta urkien infloreszentziak gustoko
dituen tximeletarik arruntenetako bat da.
Gipuzkoan urria da.

Tamaño: 30-35 mm.
Vuela de noche entre marzo y mayo.
La oruga es de color verde pálido con una
ancha línea blanca longitudinal, y se alimenta
de: tilo, roble, álamo, etc.
Habitan los claros de bosques mixtos, jardi-
nes y parques. Es fácil de identificar por tener
en el centro de sus alas anteriores una "C"
negra. Es la más frecuente de los noctuidos
que visitan las inflorescencias que surgen en
los sauces, álamos y abedules.
Escasa en Gipuzkoa.

GIPUZKOAKO INTSEKTUAK - INSECTOS DE GIPUZKOA



Hego-luzera : 32-45 mm.
Irailetik urrira agertzen dira, gaeuz.
Beldarrak hainbat belarren sustriak janez elikatzen dira. Hauek udazkenean jaiotzen dira eta hibernatu egiten dute. Negua pasata ziklo biologikoa jarraitzen dutelarik.
Belardi heze eta inguru zingiratsuetan bizi da. Hemearen antenak filiformeak dira; arrearenak, pektinatatuak. Antena mota hau ez da oso arruntak Noctuidae familian. Tximeleta hau Penintsulako iparraldean bakarrik aurki daiteke. Gipuzkoan oso urria da.



Hego-luzera : 27-35 mm.
Maiatzetik udazkenaren bukaerara hainbat belaunaldi dituzte. Egunekoa nahiz gauekoa da.
Beldarrak oso polifagoak dira: *Urtica*, *Matricaria*, *Mentha*, *Achillea*, ... janez elikatzen dira. Udan hazten diren beldarrek hiru aste behar dituzte garapena osatzeko. Udazkeneko beldarrek hibernatu egiten dute. Migratzailea denez, biotopo asko gustoko ditu: belardi, mendi-mazela, baso eta toki zabalak, beti epelak izanda.
Gipuzkoan oso urria da.

LEPIDOPTERA

NOCTUIDAE

Neuronía decimalis

(Poda,1761)

Tamaño: 32-45 mm.
Vuela de noche entre septiembre y octubre.
Las orugas se alimentan de raíces de diversas plantas herbáceas, aparecen en otoño e hibernan para continuar su ciclo en primavera.
Frecuenta prados húmedos y zonas pantanosas. Dentro de los Noctuidae, es uno de los pocos cuyo macho tiene las antenas pectinadas, siendo filiformes en la hembra. Esta especie se encuentra extendida únicamente en la mitad norte de la Península.
Es muy escasa en Gipuzkoa.

LEPIDOPTERA

NOCTUIDAE

Macdunnoughia confusa

(Stephens,1850)

Tamaño: 27-35 mm.
Vuela en varias generaciones, desde mayo hasta finales de otoño. Actividad nocturna y diurna.
Las orugas son muy polífagas, se alimentan de plantas herbáceas como *Urtica*, *Matricaria*, *Mentha*, *Achillea*, ... Las orugas de la generación de verano se desarrollan en unas 3 semanas y las de otoño hibernan.
Tiene hábitos migratorios, lo que hace que frecuente muchos biotopos, desde prados, laderas y zonas abiertas hasta bosques, pero siempre que sean cálidos.
Es muy escasa en Gipuzkoa.

LEPIDOPTERA

NOCTUIDAE

Trigonophora flammea

(Esper, 1785)



Hego-luzera : 40-50 mm.
Irailetik urrira agertzen dira, gauez.
Beldarrak *Urtica*, *Rumex*, *Ranunculus*,
Sarothamnus, eta abar janez elikatzen dira.
Berozalea denez, kararrizko mazela eta
zuhaixkak dauden larreetan bizi dira. Inguru
zingiratsuetan ere aurki daiteke. Udaberrian
hazten da beldarra. Bere hedadura atlanto-
mediterranea da. Penintsulako ekialdean gai-
nerakoan baino arruntagoa da.
Gipuzkoan oso urria da.

Tamaño: 40-50 mm.

Aparece de septiembre a octubre. Actividad nocturna.

Las orugas se alimentan de: *Urtica*, *Rumex*, *Ranunculus*, *Sarothamnus*, etc.

Especie amante del calor, por lo que frecuenta zonas cálidas como laderas de piedra caliza, praderas y arbustos. Pero también lo podemos encontrar en lugares pantanosos. La oruga se desarrolla en abril-junio. Su distribución a nivel mundial es atlanto-mediterránea. Es más común en la parte oriental de la Península. Es muy escasa en Gipuzkoa.

LEPIDOPTERA

NOCTUIDAE

Craniophora ligustri

(Denis & Sch., 1775)



Hego-luzera : 30-36 mm.
Bi belunaldi ditu: lehena udaberriaren erditik
udaren hasierara, eta bigarrena udaren
bukaeran. Gauekoa da.
Beldarrek lizarra eta arbustua jaten dute.
Parke, ibaiertz, bide-ertz eta baso mistoetan
ertzetan bizi da. Pirinioetan arrunta da;
Kantabriar mendikatean, berriz urria.
Udazkenaren hasieran hazi ondoren beldar-
ren lehen belaunaldiak hibernatzen du.
Bigarrena udaren hasieran hazten da.
Gipuzkoan oso urria da.

Tamaño: 30-36 mm.

Vuela en dos generaciones: la 1ª. de mediados de primavera a principios de verano, y la 2ª. a finales de verano. Actividad nocturna.

Las orugas se alimentan de fresno y alheña. Habita en las orillas de los bosques mixtos, bordes de caminos, riberas y parques. Es frecuente en los Pirineos pero escasa en la cordillera Cantábrica. La primera generación de orugas se desarrolla a comienzos del otoño, tras lo cual hiberna, y la 2ª. a comienzos de verano.

Es muy escasa en Gipuzkoa.



LEPIDOPTERA

NOCTUIDAE

Phlogophora meticulosa

(Linnaeus, 1758)

Hego-luzera : 45-50 mm.
Apiriletik azarora agertzen dira, gaeuz.
Beldarrek asuna, garoa, mugurdiondoa, geranioa eta abar jaten dute.
Inguru zingiratsu eta baso misto hostogalkorretan bizi da, beti uretatik gertu egonda. Bere kolore aldakorrek, arretik gorritzara berdea barne, bereizterakoan nahastezina egiten dute. Espezie hau migratzailea da; Mediterraneoetik iparraldera jotzen du, Alpeak zeharkatuz. Beldarrak hotzarekiko oso sentikorrek dira. Gipuzkoan urria da.

Tamaño: 45-50 mm.
Vuela de abril hasta noviembre. Actividad nocturna.
Las orugas se alimentan de: ortiga mayor, ortiga muerta, helecho, frambueso, geranio ...
Vuelan en zonas húmedas donde haya agua cerca, desde bosques caducifolios mixtos hasta zonas pantanosas. Su colorido, variable del pardo al rojizo pasando por el verde, la hace inconfundible y fácil de identificar. Especie migratoria que se traslada de la región mediterránea hacia el norte atravesando los Alpes. Las orugas son muy sensibles al frío. Escasa en Gipuzkoa.



LEPIDOPTERA

NOCTUIDAE

Pyramidcampa pyramidea

(Linnaeus, 1758)

Hego-luzera : 40-52 mm.
Abuztutik irailera agertzen dira, gaeuz.
Beldarrek sahatza, zumarra, elorri beltza, lertxuna eta abar jaten dute.
Baso misto hostogalkor, landa eta arbolak dituzten baratzetan bizi dira. Catocala generoko eta Noctuidae familiako beste tximeleta batzuekin gertatzen den bezala, haritz zahar eta ahulen zauri izerditsuek erakartzen dute espezie hau. Beldarra berdea eta piporra da, puntu, marra zuri eta atzeko muturrean irtenune bat dituelarik.
Gipuzkoan oso urria da.

Tamaño: 40-52 mm.
Vuela de agosto a septiembre. Actividad nocturna.
Las orugas se alimentan de: sauce, olmo, endrino, álamo, etc.
Frecuenta bosques caducifolios y mixtos, zonas rurales y huertas con frutales. En compañía de las Catocala y de otros noctuidos, son atraídas por las heridas rezumantes de los robles viejos o enfermos.
La oruga es rechoncha, de color verde con puntos y franjas blancos y con un cuerno en el extremo posterior.
Es muy escasa en Gipuzkoa.

COLEOPTERA

CURCULIONIDAE

Lixus angustatus

(Fabricius, 1775)



Neurria: 13-18 mm.

Martxotik irailera agertzen dira.

Itxura luzanga. Kolore ilunekoa eta pubeszentzia horiskaz estalia.

Larba landare desberdinen zurtoinen muinaz elikatzen da: *Malva*, *Althaea*, *Vicia*, etab. Heldua polifagoa da eta landare hauetan, hostoak eta loreak jenez, aurki daiteke: *Cirsium*, *Centaurea*, *Silybum*, *Vicia*, etab.

Klimaren arabera urtean belaunaldi bat baino gehiago izan ditzake.

Gipuzkoan oso urria da.

Tamaño: 13-18 mm.

Aparece entre marzo y septiembre.

Forma alargada. Color oscuro, cubierto de una pubescencia amarillenta.

La larva se alimenta de la médula de los tallos de diversas plantas: *Malva*, *Althaea*, *Vicia*... El adulto es polífago y vive sobre *Cirsium*, *Centaurea*, *Silybum*, *Vicia*, etc., comiendo sus hojas y flores.

Puede tener varias generaciones al año según el clima.

Es muy escasa en Gipuzkoa.

COLEOPTERA

CARABIDAE

Ceuthosphodrus navaricus vasconicus

Jeannel, 1937



Neurria: 10-15 mm.

la urte guztian zehar aurki daiteke.

Espezie hau Errenterian, Landarbason dagoen Aitzbitarte 3 kobako endemikoa da.

Karabido haizulotar hau pigmentatu gabea da, beix kolorekoa eta zerbait distiratsua. Antenak eta hanka luzeak ditu, begiak alde-rantziz oso txikiak. Ezaugarri hauek bizi den lekura moldatzen joan da.

Gipuzkoan oso urria da.

Tamaño: 10-15 mm.

Aparece prácticamente todo el año.

Esta especie es endémica de la cueva Aitzbitarte 3, en Landarbaso, Errenteria.

Carábido cavernícola, despigmentado, de un tono general beige algo brillante. Tiene las antenas y las patas largas, mientras que los ojos son muy reducidos. Caracteres que han ido evolucionando para amoldarse al medio donde vive.

Es muy escasa en Gipuzkoa.



COLEOPTERA

CETONIIDAE

Oxythyrea funesta

(Poda, 1761)

Neurria: 8-14 mm.

Maiatzetik irailera agertzen dira.

Beltza era irregularrean banatutako hainbat ile txuriz osatutako orbainekin. Arrek, emeetatik bereizten dituzten, 4 orban txuri dituzte abdomen azpian.

Kolonia txikiak osatuz bizi dira. Loreetara jotzen dute janari bila, hegan joanez. Han erraz hartu daitezke, eskuarekin ere bai.

Gipuzkoan maizkoa da.

Tamaño: 8-14 mm.

Aparece de mayo a septiembre.

Negro con diversas manchas de pelos blancos repartidos de forma irregular. Los machos se distinguen de las hembras porque tienen 4 manchas blancas en la parte inferior del abdomen.

Viven formando pequeñas colonias. Acuden volando a las flores a alimentarse. Allí se dejan coger fácilmente incluso con la mano.

Es frecuente en Gipuzkoa.



COLEOPTERA

CETONIIDAE

Trichius fasciatus

(Linnaeus, 1758)

Neurria: 9-12 mm.

Maiatzetik abuztura agertzen dira.

Beltza pubeszentzia horiskarekin, elitroetan izan ezik, hauek horiak dira kanpoko ertzetik suturaraino doazten hiru marra beltzez osatuak.

Larbak usteltzen ari diren zuhaitz hostotsuen enborretan garatzen dira, batez ere *Fagus sylvatica*-etan.

Helduak egunekoak dira, ekainean eta uztailean eguzkia bete-betean dagoenean ibiltzen direlarik hegan lorez lore.

Gipuzkoan maizkoa da.

Tamaño: 9-12 mm.

Aparece de mayo a agosto.

De color negro con una pubescencia amarillenta, excepto los élitros que son amarillos con tres bandas negras que se proyectan desde el borde externo hacia la sutura.

Las larvas se desarrollan en maderas de frondosas en descomposición, especialmente *Fagus sylvatica*.

Los adultos son diurnos y florícolas, volando activamente a las horas de máxima insolación durante los meses de junio y julio.

Es frecuente en Gipuzkoa.

COLEOPTERA

CARABIDAE

Clivina fossor

Linnaeus, 1758



Neurria: 5-7 mm.

Udaberriari eta udaran agertzen dira.

Kolore beltzekoa, antenetan, palpoetan eta anketan izan ezik hauek arreak baitira.

Lurrazpian bizi da, eta horrek egokitzapen bereziak eragiten dizkio, hanka hondeatzaileak, adibidez.

Guk hartutako aleak leku hezeetako harri azpian aurkitu ditugu.

Gipuzkoan urria da.

Tamaño: 5-7 mm.

Aparecen en primavera y verano.

Color negro, excepto las antenas, palpos y patas que son de color pardo.

Lleva una vida subterránea, lo cual le hace presentar adaptaciones especiales, como las patas excavadoras.

Todos los ejemplares recolectados por nosotros los hemos encontrado bajo piedras en lugares húmedos.

Es escasa en Gipuzkoa.

COLEOPTERA

CURCULIONIDAE

Curculio elephas

(Gyllenhal, 1836)



Neurria: 6-9 mm.

Ekainetik irailera agertzen dira.

Arre kolorekoa, ezkata argiagoeekin. Emeen muturra gorputza bezain luzea, arren bikoitza da.

Haritzak eta gaztainondoak jabez elikatzen da. Emeak fruituan zulotxo bat egin ondoren arrautza jartzen du. Egun batzuetara larba jaiotzen da, hilabete edo hilabete eta erdin elikatu egiten da. Zulatutako fruitua lurrera erortzen da eta momentu hori aprobetxatzen du larbak lurpean gorde, negua pasa eta udaberriari heldua izateko.

Gipuzkoan urria da.

Tamaño: 6-9 mm.

Aparecen de junio a septiembre.

De color pardo con escamas más claras. El rostro de las hembras, tan largo como el cuerpo, tiene el doble de longitud que el de los machos.

Se alimenta de robles y castaños. La hembra practica un agujero en el fruto y deposita un huevo. En unos días nace la larva, que se alimenta durante un mes o mes y medio. El fruto atacado cae a tierra, momento que aprovecha la larva para enterrarse, pasar el invierno y convertirse en adulto la primavera siguiente.

Es escasa en Gipuzkoa.

GIPUZKOAKO INTSEKTUAK - INSECTOS DE GIPUZKOA



COLEOPTERA

CERAMBYCIDAE

Stenurella melanura

(Linnaeus, 1758)

Neurria: 5-10 mm.

Apiriletik abuztura agertzen dira.

Beltza, elitro gorrantzak izan ezik. Arrek antenak gorputza bezain luzeak dituzte, emeek motzagoak. Helduek egun eguzkitsuetan lore-etara jotzen dute.

Arrautzak, oso lehortuta dauden eroritako zuhaitz adarretan jartzen dituzte.

Larbak oso polifagoak dira eta honako landare hauetan aurkitu dira: *Quercus*, *Acer*, *Cytisus*, *Corylus*, *Salix*, *Fagus*, *Sambucus*, *Pinus*... Garatzen urte batzuk behar dituzte. Gipuzkoan oso urria da.

Tamaño: 5-10 mm.

Aparece de abril a agosto.

De color negro excepto los élitros que son rojizos. Antenas tan largas como el cuerpo en los machos, algo más cortas en las hembras. Los adultos vuelan los días soleados y acuden a las flores.

La puesta se realiza en ramas caídas muy secas que estén en contacto con el suelo.

Las larvas polífagas, han sido citadas sobre *Quercus*, *Acer*, *Cytisus*, *Corylus*, *Salix*, *Fagus*, *Sambucus*, *Pinus*... Su desarrollo dura varios años.

Es muy escasa en Gipuzkoa.



COLEOPTERA

CURCULIONIDAE

Hylobius abietis

(Linnaeus, 1758)

Neurria: 8-14 mm.

Martxotik ekainera agertzen dira.

Kurkulionido hau marroi iluna da. Elitroetan ile zuri multzoak ditu, arrastoak balitu bezala.

2 urte irauten duen ziklo biologikoa du.

Emeak martxotik maiatzera jartzen ditu arrautzak taldeka, talde bakoitzean 2tik 5era. Udan larbak pinu egurrez elikatzen dira, eta gero inbernatu egiten dute. Hurrengo urteko udan, egur azalaren inguruan, larba heldu bihurtuko da eta, berriz ere, inbernatu egingo du hurrengo urte arte.

Gipuzkoan oso urria da.

Tamaño: 8-14 mm.

Aparece entre marzo y junio.

Este curculiónido es de color marrón oscuro. Tiene una pilosidad blanca que forma pequeñas bandas en los élitros.

Su ciclo biológico dura 2 años. La hembra pone los huevos de marzo a mayo en grupos de 2 a 5. En verano las larvas se alimentan de madera de pino y después invernán. El verano del próximo año la larva se transforma en adulto cerca de la corteza, y vuelve a invernar hasta el año siguiente.

Es muy escasa en Gipuzkoa.

GIPUZKOAKO INTSEKTUAK - INSECTOS DE GIPUZKOA

ODONATA

GOMPHIDAE

Onychogomphus uncatus

(Charpentier, 1840)



Neurria: 65-70 mm.

Ekainetik irailera agertzen dira.

Gorputzaren kolore nagusia horia eta beltza. Hego gardenak.

Larbak nahiko zorrotzak dira eta ibai txikietako edo erreketako ur bizi, garbi eta oxigenatueta bizi dira.

Helduek, uretatik urrundu daitezkeen arren, hondarretan edo ertzeko legarretan pausatzea gustoko dute.

3 urtetik 5 urtera iraun dezake beren ziklo biologikoak.

Gipuzkoan oso urria da.

Tamaño: 65-70 mm.

Aparece de junio a septiembre.

Coloración general del cuerpo negra y amarilla. Las alas transparentes.

Las larvas son bastante exigentes y habitan las aguas rápidas, claras y bien oxigenadas de arroyos y pequeños ríos.

A los adultos, aunque pueden alejarse bastante de las aguas, les gusta estar posados en las arenas o las gravas de la orilla.

Su ciclo biológico dura de 3 a 5 años.

Es muy escasa en Gipuzkoa.

ODONATA

CALOPTERYGIDAE

Calopteryx haemorrhoidalis

(Van Der Linden, 1825)



Neurria: 55-70 mm.

Apiriletik abuztura agertzen dira.

Arraren gorputza urdinxka, hego marroi ilunak ditu eta hegoen ondoa argiagoa dute. Emeetan hegoak ia gardenak eta gorputza berdea edo gorrixka.

Espezie hau, bizitza larbarioan, ur garbietako korrontetan soilik aurkitzen da. Helduak intsektuak janez elikatzen dira eta leku hauetatik ez dira urruntzen.

Gipuzkoan oso urria da.

Tamaño: 55-70 mm.


Aparece de abril a agosto.

En el macho el cuerpo es azulado y las alas son de color marrón oscuro salvo la base, que es más clara. En las hembras, alas casi transparentes y el cuerpo verde o rojizo.

Esta especie se encuentra exclusivamente, durante su vida larvaria, en las corrientes de aguas claras. Los adultos, que se alimentan de pequeños insectos, no se alejan de esos medios.

Es muy escasa en Gipuzkoa.

GIPUZKOAKO INTSEKTUAK - INSECTOS DE GIPUZKOA



Neurria: 60-75 mm.

Apiriletik irailera agertzen dira.

Arren hegoak urdinxkak dira gorputza bezala, hau urdin disdiratsua baita. Emeek aldiz, hego gardenak eta gorputz berde disdiratsua dute. Larbak, ur garbi eta bizietan bizi ohi dira, nahiz eta batzuetan ibai handietako leku lasaietan egon.

Helduak garatu diren ingurutik ez dira urruntzen; intsektuak eta ornogabe txikiak janez elikatzen dira.

Gipuzkoan oso urria da.



Neurria: 75-85 mm.

Apiriletik irailera agertzen dira.

Sabelalde zapala dute, arretan urdina eta emeetan hori-urrekolorekoa.

Ura doi-doi ukituz egiten dute hegan arrautza jartzera doan ernaldutako emeak, sabelarekin ura ukitzen duen bakoitzean arrautza bat jartzen du. Larbak urari lotuak egon arren, hiru urtez bertan hazten baitira, helduek lehorrera ere jotzen dute batzuetan.

Gipuzkoan oso urria da.

ODONATA

CALOPTERYGIDAE

*Calopteryx splendens
xanthostoma*

(Charpentier, 1825)

Tamaño: 60-75 mm.

Aparecen de abril a septiembre.

Las alas de los machos son azuladas, así como el cuerpo que es azul metálico. Las hembras tienen las alas casi transparentes y el cuerpo verde metálico.

Las larvas viven en aguas claras y rápidas, a veces en zonas tranquilas de grandes ríos.

Los adultos no se alejan de las zonas donde se han desarrollado y se alimentan de pequeños insectos e invertebrados.

Es muy escasa en Gipuzkoa.

ODONATA

LIBELLULIDAE

Orthetrum cancellatum

(Linnaeus, 1758)

Tamaño: 75-85 mm.

Aparecen entre abril y septiembre.

El abdomen es aplanado, siendo en los machos de color azul y en las hembras de color amarillo-dorado.

Las hembras fecundadas para realizar la puesta, vuelan rozando el agua y sueltan un huevo cada vez tocando el agua con la punta del abdomen. Aunque las larvas están ligadas al medio acuático donde se desarrollan durante tres años, los adultos en ocasiones pueden alejarse tierra adentro.

Es muy escasa en Gipuzkoa.

INTERNET: ORRI INTERESGARRIAK / PÁGINAS DE INTERÉS

Mónica Menéndez Muñiz

<http://www.unet.edu.ve/~frey/varios/entomologia>



Entomología orri benezolarra, Benezuelako intsektuak ez ezik iberoamerika guztikoak agertzen direna, artikulatu batzuen separata ere badaude, espezie berrien deskribapena, eta Kanadako museo virtual berriarekin loturak, hemen iparraldeko eta hegoaldeko tximeletak ikus ditzakezu, ezin dezugu galdu. Baditu entomofauna benezolarren boletinarekin ere loturak, baita nikaraguako entomologia elkartearekin ere, insectario birtualarekin... non aurki ditzakezun ordenagailurako jokuak intsektuekin, hor hobeto ezagutuko dituzu.

Página venezolana de entomología, con todo tipo de información no sólo de insectos de Venezuela sino del resto de iberoamérica; incluyendo separatas de algunos artículos, descripción de especies nuevas, y enlaces con el museo virtual de Canadá donde puedes ver una exposición de mariposas del norte y del sur que no debes perderte, también tiene enlaces con el boletín de entomofauna venezolana, la asociación nicaragüense de entomología, el insectario virtual... incluso hay un apartado donde puedes encontrar juegos de ordenador con insectos, donde aprendes a conocerlos mejor.

INTERNET: ORRI INTERESGARRIAK / PÁGINAS DE INTERÉS

Mónica Menéndez Muñiz

<http://entomologia.rediris.es>

“Comunidad Virtual de Entomología”ren orri nahiko konplettoa, dena erderaz. Elkarte entomologikoeri buruz informatzen du (SEA, PrIBES, GIA, GTLI, AEGA, Iberodorcadion,IXCIE), biltzarrik, orden berriak, eztabida-leku, baita Antonio Melic jaunak egindako entomologentzako Gida Arkar bat ere. Erraz irakurtzen da eta oso ondo azaldu dago, non edozein hasi daitekeen intsektuen munduan eta dibersitateaz ezagutzen. Pena merezi du orri hau ikustea.


Página bastante completa, toda en español, de la Comunidad Virtual de Entomología con información sobre asociaciones entomológicas (SEA, PrIBES, GIA, GTLI, AEGA, Iberodorcadion, IX CIE), congresos, nuevos órdenes, foros de discusión e incluso una Guía Rápida Para Entomólogos hecha por el señor Antonio Melic fácil de leer y muy bien explicada, donde cualquiera puede iniciarse fácilmente en el mundo de los insectos y su diversidad. Merece la pena ver esta página.

LIBURUAK - LIBROS

Entomología

Entomologiari buruzko oinarriko liburuak gomendatzen dizkizuegu atal berri honetan, liburu-dendetan erraz aurkitu daitezke. Intsektuei buruzko gida liburu dezente argitaratu dituen Ediciones Omega S.A.-renak dira gehienak.

En esta nueva sección os recomendamos libros básicos de Entomología que podéis encontrar fácilmente en las librerías. La mayoría son de Ediciones Omega S.A. que ha editado bastantes guías sobre insectos.



TRATADO DE ENTOMOLOGÍA IMMS

O. W. Richards / R. G. Davies

Entomologia tratatua. Oso osatua. Irudi txuri-beltzekin ilustratua.


1. liburukia 448 orri. 1983. urtea. 53,50 euro.

2. liburukia 1008 orri. 1984. urtea. 85 euro.

Tratado de Entomología. Muy completo. Ilustrado con figuras en blanco y negro.

Vol. 1, 448 Pag. Año 1983. 53,50 euros.

Vol. 2, 1008 Pag. Año 1984. 85 euros.



BASES PARA UN CURSO PRÁCTICO DE ENTOMOLOGÍA


Coordinación: J. A. Barrientos

Talde desberdinetan adituak direnek egindako lana. Irudiak txuri-beltzean. Ikuspegi praktikoa.

754 Orri. 1988. urtea. 30 euro.

Obra realizada por especialistas de diversos grupos. Figuras en blanco y negro. Enfoque práctico.

754 Pag. Año 1988. 30 euros.



TRATADO DE ENTOMOLOGÍA


Juan Manuel Nieto Nafria / M. Pilar Mier Durante

Ikasleen beharrak asetzearren sortua. Irudi txuri-beltzekin ilustratua.

616 orri. 1985. urtea. 65,50 euro.

Pensado para satisfacer las necesidades de los estudiantes. Ilustrado con figuras en blanco y negro.

616 Pag. Año 1985. 65,50 euros.




GUÍA DE LOS INSECTOS DE EUROPA

Michael Chinery

Koloreetan dituen argazkiek, begiratu batean, orden desberdinetako intsektuak ezagutzeko aukera ematen duen liburu polita. Egile berdinaren argitalpen berri bat badago. 32,30 euro.

Bonito libro con ilustraciones en color para identificar a simple vista los insectos de diversos órdenes. Hay otra nueva edición del mismo autor. 32,30 euros.



ENTOMOLOGÍA FORESTAL / Los insectos y el bosque

Roger Dajoz

Liburu hau ez da intsektu kaltegarriei buruz bakarrik, baizik eta basoko intsektu guztien ekologiari buruz. 560 Orri. 2000. urtea. 45,10 euro.

Este libro trata no sólo de los insectos dañinos, sino de la ecología de todo el conjunto de los insectos forestales. 560 Pag. Año 2000. 45,10 euros.




GUÍA DE LOS ANIMALES PARÁSITOS DE NUESTRAS CASAS

Henri Mourier / Ove Winding / Ebbe Sunesen

Gidaliburu erabilgarri honek animaliak hurbiltzen dizkigu, batez ere, gure etxebizitzetan aurkitu daitezkeen intsektuak eta hauek batzuetan sor ditzaketan kalteak. 224 Orri. 1979. urtea.

Este manual práctico nos acerca a los animales, principalmente insectos, que se pueden encontrar en nuestras casas y los daños que a veces producen. 224 Pag. Año 1979.




GUÍA DE CAMPO DE LOS INSECTOS DE ESPAÑA Y DE EUROPA

Michael Chinery

Intsektu arruntenetara hurbiltzen gaituen gida liburua. 1000 argazki. 560 argazki koloreetan eta txuri-beltzean. 464 orri. 37,50 euro.

Guía de campo que nos acerca visualmente a los insectos más comunes. 1000 ilustraciones. 560 dibujos en color y blanco y negro. 464 Pag. 37,50 euros.



GUÍA DELS INSECTES DELS PAÏSOS CATALANS

Juli Pujade / Victor Sarto

Kataluinako intsektu gida orokorra. Intsektu arrunten irudiekin. 2 liburuki. 22 euro bakoitza.

Guía general de los insectos de Catalunya. Ilustraciones de los insectos más comunes. 2 Volúmenes. 22 euros cada uno.



INSECTOS DE ESPAÑA Y DE EUROPA

W. Dierl

Naturalistentzako gida. Motxilan mendira eraman eta bertan intsektu arruntenak ezagutzeko. 240 orri. 1995. urtekoa. 89 xafila koloretan. 32 euro.

Guía para naturalistas. Para llevar en la mochila e identificar los insectos más comunes en el campo. 240 Pag. Año 1995. 89 láminas en color. 32 euros.



GUÍA DE LOS INSECTOS DE EUROPA

Michael Chinery

Gida honek dituen 320 orrietan gure mendietan ikus daitezkeen intsektu arruntenak aurki ditzakegu. Koloreetako 2000 irudi agertzen dira. 34 euro.

En las 320 páginas que tiene esta guía, podemos ver los insectos más comunes que encontraremos en nuestros campos. Con 2000 ilustraciones en color. 34 Euros.



GUÍA DE LOS INSECTOS DE EUROPA

J. Zahradnik / F. Severa

Intsektuetan interesa duten naturalistentzako gida oinarrikoa. 780 irudi agertzen dira koloretan. 320 orri. 1981. urtekoa. 27,50 euro.

Guía básica para los naturalistas interesados por los insectos. Ilustrado con 780 figuras a color. 320 Pag. Año 1981. 27,50 Euros.

HEMEROTEKA

KOXKAS

R.M.

DE CASAS Y GUSANOS DE SEDA

San Sebastián crecía a ritmo acelerado. La vieja ciudad apris... hasta 1863 por se extendía en ur... ado... Cortázar del Urumea... va ciudad y... io del Casino... ría una real... ad.

Y junto a esta información, que podríamos calificar de *altos vuelos*, otra bien curiosa publicaba el periódico. En la tienda que en la calle del Pozo (actual acerca del Boulevard) tenía el señor Bentem se habían expuesto aquellos días varios tejidos de seda fabricados por el activo industrial don Gregorio Lopetedi, cuya seda procedía de los gusanos criados en los robledales de Guipúzcoa.

Escribía el periódico *El Liberal* de Madrid: «Un acontecimiento grande y plausible constituye para Guipúzcoa el hecho, tan sensible al parecer, de mostrarse en los escaparates de San Sebastián las primicias de una nueva industria, con perseverante esfuerzo implantada. Son varias piezas de tejidos de seda, cuya seda procede del gusano aclimatado en los robledales guipuzcoanos. Tal es, pues, la realización feliz de los que muchos consideran utopía y el principio **acaso** de una fuente próspera de actividad y riqueza».

EL DIARIO VASCO 07/06/2003

BRASIL

Detenido un navarro por tráfico de animales

Jesús Zaraza Astrain, vecino de Pamplona, fue detenido, y después liberado en Brasil tras pagar una fianza, al descubrirse que intentaba salir del país con más de un centenar de insectos y semillas de la región amazónica. El director del Instituto Brasileño de Medio Ambiente dijo que por la forma en que estaban colocados los animales hubiesen muerto en poco tiempo. EP

EL DIARIO VASCO 15/06/2003

Un museo con más de 24.000 mariposas

Ejemplares de todas las especies de mariposas que viven en Cataluña y de algunas que ya han desaparecido se exhiben en el Museo de la Mariposa de Pujalt, un centro único por sus características que dispone de un fondo de más de 24.000 de estos insectos. El museo abrió sus puertas hace un año y expone los ejemplares recogidos durante los últimos 35 por los entomólogos Alfons G. Dolsa y su esposa María Teresa Albarrán, que están llevando a cabo un innovador estudio. EFE

EL DIARIO VASCO 10/08/2003



Larunbatero MANTANGORRI

Mantangorri izango da, aurrerantzean, hauren lagun berria. Mantangorriak Europako txokoak, Interneteko orrialde interesgarriak, erreportai dibertigarriak eta askotariko jokoak erakutsiko dizkizu.

Larunbatero 16 orri jolasteko eta ongi pasatzeko.

BERRIA 2003/06/21



EL DIARIO VASCO 25/08/2003

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:




kutxa

zuri esker
gracias a ti




INTSEKTUEKIN JOLASEAN JUGANDO CON INSECTOS

Faustino Uranga



Euliak dituzten 4 irudi hauek moztu behar dira, eta M bat osatu-ko duten moduan kokatu.



Hay que recortar estas 4 figuras que contienen moscas y colocarlas de tal manera que formen una M.



Kajoi batean 14 marigorringo gorri eta 14 marigorringo hori daude. Begiak itxita, zenbat marigorringo atera beharko dira gutxienean, kolore berdineko bi atera ditugula zihurtatzeko?

En un cajón hay 14 mariquitas rojas y 14 mariquitas amarillas. Con los ojos cerrados ¿cuántas mariquitas habrá que sacar para asegurarse que al menos sacamos 2 del mismo color?

Aurreko zenbakiko erantzunak/ Respuestas al número anterior:



Algunas especies de
termitas se defienden
de sus enemigas,
las hormigas,
lanzándoles
unas gotas de cola.
Esta cola endurece
rápidamente inmovilizando
a la hormiga.




*El insecto más numeroso que habita
en el suelo pertenece al orden Thysanura
(Pececillos de plata)*

*En los herbazales se pueden contar hasta
50.000 por metro cuadrado.*



**ES POSIBLE OÍR
EL CANTO DE UNA CIGARRA
DESDE UNA DISTANCIA
DE 400 M.**

**El batir
de alas
más rápido
lo ostenta la
mosca del género
Forcipomyia:
62760 golpes
de ala por minuto.**



astindu ahoan duzuna. usa tu lengua.

euskaraz? bai.



EUSKARA Gurekoa
http://www.gg.euzko.eus/02_01/